

ALBIZTUR / Ipuina eta hitzaldia dira Kultur Asteari bide emango diotenak.

Ez da urteroko herrik mugak ikusteko ibilaldia faltako, eta 'Bota Patsa' antzerkia izango da aurtengo deigarriena

Nerea Urbizu

Albizturren bost egunetan zehar herritarrei nahiz kanpotarrei zuzenduriko kultur ekitaldiak antolatu dituzte, bai Udalak eta baita Arkaitz elkarteak ere. Aurtengo Kultur Astearen deigarriena Bota Patsa antzezlanak izango da, ekainaren 2an izango dena, alegia.

Baina gaur emango diote hasiera Kultur Asteari, Idoia Sanchez ipuin-kontalariarekin. 18:15ean izango da saioa liburutegian. Ordu berean, gurasoei zuzenduriko hitzaldia izango da, eta psikologo batek bideratuko du.

Nolega programaren baitan, herenegun Albizturren antzerki bat eskaini zuten ikasleek: bihar errepikatu egingo dute, baina herritarrentzat. Hau, eskolako psikomotrizitateko gelan izango da. Eskolako zuzendariak esan zuen bezala, bi hilabete daramatzagu prestatzen, eta eskainiko dutena Amona honekin kontuz izango da.

Urtero herriko mugak ikusteko ibilaldia antolatzen du Udalak, eta aurten ere izango da, igandean. 07:30ean aterako dira plazatik, eta Erriotik Urkizu aldera joango dira. Hamaiketako ere izango da ondoren.

Bota Patsa antzezlanak izango da aurtengo ekitaldirik garrantzitsuenak. Eskualdeko aktoreak bertan, eta umorea jorratzen dute Iker Galartzak eta Joseba Usabiagak. Kultur Etxean izango da ekainaren 2an, larunbatean. Ekainaren 3an share erakustaldia izango da, eta ondoren, pilota partida onak; Telleria, Telletxea, Senperena, Narbarte, Renobales eta Olaetxea.